

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1681

357/2022 EBAZPENA, martxoaren 31koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzako Ospitalizazioaren Alternatibak Zerbitzuko Unitate Korporatiboko Buru lanpostua izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdi publikoa.

Zuzendaritza Nagusiko Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzako Ospitalizazioaren Alternatibak Zerbitzuko Unitate Korporatiboko Buru lanpostua hutsik dago. Horren ondorioz, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluan, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori lehiaketa bitartez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Giza Baliabideen Zuzendaritza honek, honako oinarrien arabera

OINARRIAK

1.– Lanpostuaren atxikipena.

Atxikipena: Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia. Asistentzia Sanitarioko Dibisioko Zuzendari-tzako Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza. Lanaldi zatitua. Vitoria-Gasteiz.

3. hizkuntza-eskakizuna (derrigortasun-datarik gabe).

2.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan, estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-legepeko kontratudun finkoa izatea eta plaza jabetzan edukitzea B1/B2 lanbide-taldean.

b) Hiru urteko lan-esperientzia izatea, gutxienez, B1/B2 lanbide-taldean.

c) Titulazio akademikoa: Diplomatura edo Gradua Medikuntzan

d) 3. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarik gabe.

e) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren eta Osakidetzako Euskara Planaren gainerako bete-beharrak betetzea.

3.– Lanpostuaren eginkizunak.

– Zuzendariordetzaren zeharkako proiektuei erantzun egokia emateko ekintzak koordinatu, erraztu, bultzatu eta dinamizatzea.

- Paziente-taldeen asistentziaren jarraitutasuna eta esparru asistentzial eta soziosanitario desberdinetako profesionalen arteko lankidetzaren bermatzeko tresnak garatzea: ibilbide, protokolo eta/edo gida asistentzialak, asistentziaren eraldaketa eta integrazioa bultzatzeko.
- «Zuzendariordeztaren proiektuetan jardunbide egokiak» hautematea eta ezagutzera ematea.
- Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea proiektuen helburuak betetzeko.
- Herritarrak gehiago ahalduntzen laguntzea beren osasunari dagokionez, helburu hori duten Zuzendariordeztaren proiektuen esparruan.
- Ezagutza eta etengabeko prestakuntza profesionalen artean zabaltzeko estrategiak eta ekintzak lantzea, proiektuen esparruan.
- Zuzendariordeztaren proiektuetan emaitzak ebaluatzen eta hobetu beharreko arloak identifikatzen laguntzea.

4.– Aintzat hartuko diren merezimenduak.

Honako arlo hauetako eskarmentua eta ezagutzak baloratuko dira:

- Berrikuntzaren, ikerketaren eta datu-baseen erabileraren metodologiari buruzko ezagutzak.
- Taldeen maneiuari eta -dinamikei eta taldeak bideratzeari buruzko ezagutzak.
- Programak inplementatzeko ezagutzak.
- Bulegotikako eta bilaketa bibliografikoko tresnak erabiltzen jakitea.
- Plataforma teknologikoen erabileraren inguruko ezagutzak.

5.– Euskararen ezagutza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

6.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen Zuzendaritzara igorri beharko dituzte eskabideak, 15 egun balioduneko epean, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera, helbide honetara: Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatzen den moduan ere aurkeztu ahalko dira.

Interesdunek eskabidea Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidali beharko dute datu pertsonal guztiekin eta dokumentatutako Curriculum Vitaearekin.

Curriculum Vitaeko dokumentazioa honelakoa izan behar da:

- NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala bada-gokio, lan-legepeko kontratudun finkoa dela egiaztatzen duen agiriarena.
- Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- Baloratu beharreko merezimendu guztien fotokopia konpultsatua.

CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, hautagaiak horren berri eman behar du eskaeran.

7.– Balorazio-batzordea.

Balorazio batzordea osatuko da, batzordeburu Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Hautaketako eta Horniketako zuzendariordea edo hark eskuordetzen duena izanik, eta hauexek izango dira bertako partaideak: Ospitaleko Arreta Koordinatzeko zuzendariordea eta Kalitatearen eta Informazio Sistemen Zerbitzu burua eta Giza Baliabideen Hautaketako eta Horniketako teknikaria (idazkari izango dena, ahotsarekin eta botoarekin).

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak gauzatzea erabaki dezake; eta izangaiei horren berri emango die.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake epaimahaiak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiek betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak eta gauzatutako eginbide osagarriak (halakorik balego) zerrendatuko dira, eta lanpostua euretako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango dira.

8.– Hautaketa-prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia EHAAan argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

9.– Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena.

Hemen abiatzen den prozedura amaitzeko (lanposturako esleitzea edo lanpostua hutsik uztea), ebazpena eman behar du Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariak. Hori Intranetean eta Osakidetzako webgune korporatiboan argitaratuko da.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu EHAAan argitaratzen den egunetik, bertan besterik xedatu ezean.

10.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 31.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.